

# Sagar txapeldunak

Aurten ere Ramon Aseginolazak irabazi du fruta alorreko Ordiziako Saria, sagar-mota berriak aurkeztuta

**FELIX IBARGUTXI/DV. ORDIZIA**  
Aurreko hiru urteetan bezala, atzo ere, fruta alorreko Ordiziako Sari Nagusia irabazi zuen Idiazabalgo Ramon Aseginolazak. Hogeita hamar bat sagar-mota aurkeztu zituen, eta baita zenbait udare, aran eta bestelako fruta ere.

Bere baserrian, Kalbario Behekoan, dauka Aseginolazak sagastia. Goierrri aldeko zenbait azokara eramaten ditu sagarrak, lan horretan emazteak laguntzen diolarik.

Berak txikitan ezagututako sagarrek ez daukate zerikusirik oraingoekin. Hamabi bat urte badira baserriko soroak fruta-arbolez bete zituela eta, batez ere atzerriko izena daukaten sagar-motak aldatu zituen; esaterako, *redwinter*, *braeburn*, *boskoop*, *royal gala*, *estivale* eta *earligold*. Hauetako gehienak laboratorietan sortuak dira, orain urte asko ez direla sortu ere. Barietate batzuk orain urte gutxi sortuak dira, hala nola *braeburn*, *elista*, *fuji*, *redwinter* eta *estivale*.

Berak Frantziatik ekartzen ditu arbolak: «Hemengo mintegieta-koak kejutuko zaizkit esan behar dudana esateagatik, baina iruditzen zait arbolak Frantziatik ekarrita gaitz gutxiago izango dudala sagastian. Han hobeto dabilta sanidade aldetik. Han zuhaitzak zortzirehun pezeta kostatzen dira, hemengoan aldean doblea, baina merezi du, horixe merezi duela», esan digu Aseginolazak.

Uzta ona nola lortzen duen? «Arbola alea hartzen hasten de-



Ramon Aseginolaza atzo Ordizian bere sagarren ondoan.

nean, ondo begiratzen dut. Gehiegi badauka, bakandu egiten diot. Gero, saiatzan naiz sagastian belarra ebaki eta bertan uzten, horrek bentaja egiten dio eta lurrari. Eta simaurra... simaur asko botatzen dut».

## ‘Everest’ en laguntza

Frutazale honen beste *sekretu* bat *everest* izeneko arbola da. Sagarmota txiki-txiki bat da, gerizaren tamainakoa, ale asko ematen due-

## ■ Urtero sagar-mota berriak ekartzen ditu Frantziatik probak egiteko

na. Loratan jartzen denean, erle pilak joaten dira sagastira eta hartara polinizazioa askoz hobeto egi-

## Gehien saltzen dituen sagarrak

Hona hemen Aseginolazak gehien saltzen dituen sagar-motak: *red star* (izar gorria), *reina de reinetas*, *boskoop gorria*, *reineta grisa*, *royal gala* eta *braeburn*. Hauexek baitira jendeari gehien gustatu zaizkionak.

«Jendea ez da tontoa, eta sagarmota batzuek segituan uzten dituzte atzera besteak», esan digu sagarzale honek.

Erretzeko sagarrak onena *boskoop gorria* omen da. Frantziar mota hori erabiltzen da batez ere eginkizun horretarako.

Konpotarik egin nahi izanez gero, berriz, beste sagar hauek komeni dira, Aseginolazaren iritziz: sagar beltza, errezilla, *boskoop gorria*, Frantziako erregea eta *reineta de Aragón* edo *reineta txuria*.

Iraupen haundiko sagarrak nahi bada, berriz, beste hauek: *braeburn*, *fuji*, *boskoop gorria* eta *errezilla*.

ten da. Orain dela zazpi urte inguratu zuen Frantziatik sagarmota hori, baina Gipuzkoako mintegietan ez da oraindik salgai jarri.

Urtero nobedadeak ekartzen ditu Frantzia aldetik: «Urtero nobedadeak ekartzen ditut proba egiteko. Behartuta nago, bezeroei gustatzen zaien jakiteko eta zenbat produzitzen duen ikusteko».

Sagar-arbolek hasi aurretik, eta baserriko soroei etekina atera nahian, briñoiak aldatu zituen, iaz

Goierritarra aldizkariari aitortuz zionez: «Hasiara-hasieran briñoiak izan nituen, eta izugarri ematen zuten. Baina orduan nobedadeak zuten hemen eta ez zen saltzen».

Frantziar ikasi zuen sagar-arbolak gobernatzen idiazabaldar honek: «Han egon nintzen denbora batez eta lagun bat neukan 13 hektarea sagar eta 7 hektarea briñoi zeuzkana. Nire aita bezala izan zen hura. Berak erakutsi zizkidan sagarraren sekretuak».